Barakaldo hitza '22

XIX. Literatur Jardunaldiak

Mikrokontakizunen VII. Lehiaketa

Euskarazko literatur sormena sustatu eta bultzatu nahian, Barakaldoko Kultur Ekipamenduen Hurbileko Sareak Mikrokontakizunen VII. Lehiaketarako deialdia egingo du.

1. Hala nahi duten 16 urtetik gorako guztiek har dezakete parte lehiaketa honetan euskarazko kategorian.

2. Parte-hartzaileek **gehienez 20 hitzeko mikrokontakizun bat** idatziko dute, **kontatu gabe** derrigorrean sartu beharko diren hitzak: **"ezustean harrapatu"**. Halaber, parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, 2 lan aurkeztu ahal izango ditu, beti ere oinarri hauek xedatzen dituzten betekizunak aintzat hartuta.

3. Kontakizunak originalak, argitaragabeak eta aurrez saritu eta/edo argitaratu gabeak izango dira.

4. Kontakizunak **"Whatsapp"** edo **"Telegram"** bidezko mezu baten bitartez bidaliko dira ondoko telefono zenbakira: **680 847 315**

5. Mikrokontakizunak bidaltzeko epea **2022ko martxoaren 28ko 00:01etik apirilaren 12ko 23:59ra** egongo da zabalik. Epe horretatik kanpo ez da mezurik onartuko.

6. Honako sari hauek banatuko dira:
   - **1. Saria: 200 €**
   - **1. Akzesita: 150 €**
   - **2. Akzesita: 150 €**

7. Epaimahaia komunikazio, hizkuntza eta literatura alorreko profesionalek osatuko dute. Epaia apelaezina izango da, eta epaimahaiak ebatziko du oinarrietan agertzen ez den edozein gorabehera. Sariak eman gabe ere gera litezke.

8. Epaimahaiak jasotako 20 mikrokontakizunik onenak hautatuko ditu, ondoren horien artean sarituko diren 3 lanak aukeratzeko. Finalistak zein saritutako 3 lanak BarakaldoEuskaraz gizarte sareetan (Facebook, Twitter, Instagram) argitaratuko dira.

9. Sariak 2022ko maiatzaren 10ean Barakaldo Antzokian egingo den Sari Banaketa ekitaldian emango dira jakitera.

10. Ez dute lehiaketan parte hartzerik izango ez epaimahaikideek, ez zuzenean antolakuntzarekin zerikusia duen inork.

11. Barakaldoko Udalaren Kultura Arloak lan guztien jabetza bereganatuko du, baita eurak erakutsi, berregin edo argitaratzeko eskubidea ere. Lanak Udalaren kultur ondarea bihurtuko dira eta ezin izango dira salerosketa gai izan.

12. Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarriak osoosoan onartzen direla esan nahi du. Aurkezteko baldintzak betetzen ez dituzten lanak atzera botako dira.

Datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 5. artikuluan adierazitakoa betez, jakinarazi nahi dizugu inprimaki honetan adieraziko dituzun datuak Kultur Aretoko Lehiaketetako partaideen datu-fitxategi batean erregistratuko direla; horren helburua deialdietan parte hartzen duten hautagaiak ezagutzea da; informazioa Barakaldoko Udalaren Kultur Arloko langile eta arduradunek jasoko dute eta fitxategiaren arduraduna Barakaldoko Udala izango da (Herriko Plaza, 1).

Informazio gehiago:

944 789 528

euskara@barakaldo.eus

Antolatzailea: Barakaldo Ciudad Hiria

Babeslea: Bizkaia foru aldundia diputación foral